

UDAL EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO AUZITEGIEN IX. TOPAKETA

Ekainaren 12an eta 13an egin zen Bilbon Udal Ekonomiko-Administratibo Auzitegien IX. Topaketa Bizkaia Aretoan (Euskal Herriko Unibertsitateko Paraninfoa). Antolatzaileak Bilboko Udaletxeko Udal Ekonomiko-Administratibo Auzitegia eta UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskola izan ziren. Estatuko zenbait udalerritako auzitegiak (Euskal Autonomia-Erkidegoko hiru hiriburuak, A Coruña, Bartzelona, Burgos, Cartagena, Castelló de la Plana, Xixon, Granada, Las Palmas Kanaria Handikoa, LHospitalet de Llobregat, Lugo, Madril, Mostoles, Ourense, Oviedo, Mallorcako Palma, Pontevedra, Pozuelo de Alarcon, Sevilla, Valentzia eta Vigo) ordezkariak bertaratu ziren.

Ekonomiko-administratibo erreklamazioak ebazten dituzten udal auzitegi edo organoen jatorria Toki Gobernuaren Modernizaziorako Neurriak onartzen dituen 57/2003 Legea da, eta herritarrek zergen aplikazio, zerga-zigorren inposaketa eta borondatezko aldian zein premiamenduan diru-bilketaren kudeaketaren egintza eremuan aurkezten dituzten erreklamazioak ezagutu eta ebazten dituzten organo espezializatuak dira.

Udal Ekonomiko-Administratibo Auzitegien funtzionamendua independentsia eta doakotasun printzipioetan oinarritzen da. Horiek aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta ebazterakoan gaitasun tekniko eta objektibotasunaren alde egiten dute, zergapekoen eskubideen defentsa bizkortuz.

Era horretako udal organoak ezarri direnetik, Estatuko zenbait hiritan egin dira topaketak intereseko gaiak aztertzeke bai eta dituzten funtzioekin erlazionatutako esperientziak elkarren artean jartzeko.

2014an Bilboko auzitegia izan da jardunaldien ostalaria eta antolatzailea UPV/EHUko Lan Harremanen Eskolarekin batera, azken horren parte hartzea egokitzat jo baita jardunaldioi eduki akademiko nabarmena eman, erakunde publiko baten ekarpenaren balioa jarri eta ekintza publikoaren zuzentarau gisa herritarren defentsa azpimarratu ahal izateko. Horrela, jardunal-

dien hasieran Unibertsitatearen izenean Zuzenbidean doktorea den Mikel de la Fuente Lavín izan zen; hizlari nagusi gisa Itziar Etxebarria Bilbao Aldezlea; hizlariaren aurkezle gisa Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako zuzendaria den Ángel Elías Ortega, eta Topaketa ixteko UPV/EHUko errektorea den Iñaki Goirizelaia Ordorika.

Hizlari gisa honako hauek nabarmendu behar dira: Juan Luis Ibarra Robles, Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakaria; Francisco Velasco Caballero, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Administrazio Zuzenbideko katedraduna; eta Iñigo Lamarca Iturbe Arartekoa.

Jarraian jardunaldien laburpena egingo da. Lehenengo zatiaren muina ekonomiko-administratibo bidearen eta justiziaren erlazioak izan ziren. Lehenengo hizlaria Juan Luis Ibarra Robles izan zen, eta bere aurkezpena Ángel Zurita Lagunak, Bilboko Udaletxeko Letratu aholkulariak egin zuen. Ibarra jaunak Ekonomiko-administratibo auzitegien eta gatazka judizialen jaitsieraren arteko erlazio interesgarria azaldu zuen. Bigarrenik, Francisco Velasco Caballerok ekonomiko-administratiboko ebazpenak eta justizia administratiboaz hitz egin zuen. Horren aurkezpena era Ángel Zuritak egin zuen. Velasco irakaslearen hitzaldia berritzailea izan zen eta, Ekonomiko-Administratibo Auzitegien emaitza on eta eraginkorrak aintzat hartuz, administrazio- eta auzibidezko balizko aldaketa planteatu zuen. Azkenik, mahai-inguru oso interesgarri baten ondoren, Aldezle izateaz gain, Psikologian doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den Itziar Etxebarria Bilboak parte hartu zuen Administrazioaren aurrean eskubideak defendatzen dituzten erakundeen babilioaz hitz egiten

Ostiraleko jardunaldian, Ángel Elías Ortegak aurkeztu zuen Iñigo Lamarca Iturbek honako gai hau azaldu zuen: Herritarren kexak Administrazioaren aurka. Administrazio onaren printzipioa krisi garaietan. Hitzaldi horretaz gain, eta ikuspuntu praktikoagoa eta parte hartzeagoa ematearren, egun horretan bertan Lan-Mahaiak antolatu ziren ebazpen organoetako ordezkarien artean erreklamazioekin erlazioatutako gaiak aztertu eta eztabaidatzeko. Jardunaldia amaitzeko Mahaien konklusioak azaldu ziren eta «Udal Ekonomiko-Administratibo Auzitegien gatazken analisisa (2012-2013)» ikasketaren aurkezpena egin zen.

Gaur, inoiz baino gehiago, era honetako organoen beharra baloratu behar da, kudeaketa publikoa hobetzen eta herritarren eskubideak interes orokorraren ikuspegitik defendatzea ahalbidetzen dutelako.

Jarraitutako programaren edukia honako hau izan zen

Ekainaren 12a

Jardunaldien HASIERA. Irekiera-mahaia:

Ibon Areso Mendiguren jauna, Bilboko Alkatea.

Mikel de la Fuente Lavín jauna, Zuzenbidean Doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

Julia Madrazo Lavín andrea, Bilboko Ekonomiko-Administratiboko Auzitegiko Lehendakaria.

HITZALDIA: «Ekonomiko-Administratibo Auztegiak eta gatazka judizialen jaitziera».

Juan Luís Ibarra Robles jauna, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakaria.

Aurkezpena Ángel Zurita Laguna jaunak, Bilboko Udaletxeko Letratu aholkularia.

HITZALDIA: «Ekonomiko-Administratibo ebazpenak eta justizia administratiboa».

Francisco Velasco Caballero jauna, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Administrazio

Zuzenbideko Katedraduna. Aurkezpena, Ángel Zurita Laguna jaunak.

MAHAI-INGURUA, hizlarien artekoa. Moderatzailea, Ángel Zurita Laguna jauna.

HITZALDIA MAHAI-INGURUAREKIN: «Administrazioaren aurrean eskubideak defendatzen dituzten erakundeen balorea».

Itziar Exebarria Bilbao andrea, Psikologian doktorea eta UPV/EHUko ALDEZLEA eta irakaslea. Aurkezpena, Doña Julia Madrazo Lavín andreak.

Udaletxean harrera.

Ekainaren 13a

KOMUNIKAZIOA eta honako gai hauek jorrazteko Lan-Mahaien banaketa:

1. «IIVTNU. Novedades jurisprudenciales sobre determinación de la base y del hecho imponible (pérdida de valor del inmueble)».
2. «Actos de la Gerencia catastral. Interrupción de la prescripción en las liquidaciones de IBI e IIVTNU. Aplicación retroactiva de los valores catastrales».
3. «Notificaciones en domicilio desconocido. Diligencia exigible a la Administración para la localización de la persona destinataria».
4. «Liquidación y recaudación de ingresos de derecho público entre Administraciones Públicas. Compensación, embargo de bienes, interrupción de la prescripción. Obligatoriedad de la vía económico-administrativa (inaplicación art. 44.1 LJCA)».

HITZALDIA: «Herritarren kexak Administrazioaren aurka. Administrazio onaren printzipioa krisi garaietan».

Iñigo Lamarca Iturbe jauna, ARARTEKOA. Aurkezpena, Ángel Elias Ortega jaunak, UPV/EHUko Lan Harremanen Eskolako Zuzendaria.

Lan-Mahaien KONKLUSIOEN azalpena.

«Udal Ekonomiko-Administratibo Auzitegien gatazken ikasketaren aurkezpena (2012-2013)».

Jardunaldien ITXIERA.

Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea.

Aldizkariaren zati monografikoa itxeko Izaskun Landaida, Emakundeko zuzendariak, 2014ko azaroaren 11an Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako ikasleei diplomak banatzeko ekitaldian eginiko hitzaldia sartu da.

Julia Madrazo Lavín